

AURREMATRIKULAZIOA BURUTZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Ikaslearen familia-liburuko fotokopia edo dokumentu baliokidea.
- Familia liburuan aita/amaren orriaren fotokopia edo lege-tutorea izatearen ziurtagiria.
- Ikaslea familia-harreran egotekotan, berezko ziurtagiri ofiziala.
- Aita, ama edo tutorearen NAN/AIT.
- Familia-errodaren ziurtagiria.
- Familia banandua edo dibortziatua izatekotan, Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa bete izanaren agiria.
- Hezkuntza Premia Berezietaiko galde-sorta (premia berezietaiko ikaslea dela adierazten bada).
- EAetik kanpo ikasten badu eta Lehen Hezkuntzan edo DBHn onartzeko eskatzen badu, egindako ikasketen ziurtagiria, gaur egun egindako maila zehaztuta.

¿ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUT BAREMOKO PUNTUAK LORTZEKO?

a) Familiaren urteko errenta:

Ikaslearen anai-arreba adingabeei dagozkien familia-liburuko orrien fotokopia edo beste egiaztagiri ofiziala.

Errentaren aitortpena EAEn aurkeztu bada, Foru Aldundietako Ogasun Departamentuetan familia-unitateko kide guztien errenta datuak egiaztatze baimena.

EAE-tik kanpo aurkeztua bada, 2019ko Errenta aitortpenaren kopia.

b) Bizilekuaren hurbiltasuna

Ikaslearen aita, ama edo lege-tutorearen lantegiaren ziurtagiria.

c) Ikastetxearekiko erlazioa

Ikaslearen anai-arrebaren batek eskatutako ikastetxean edo atxikitako zentzoren batean ikasten duela ziurtatzen duen agiria.

Ikaslearen aitak, amak edo lege-tutoreak eskatutako ikastetxean edo atxikitako zentzoren batean lan egiten duela ziurtatzen duen agiria.

d) Beste irizpideak

Kide ugariako familia izatearen ziurtagiria (EAetik kanpo bizi direnak bakarrik).

Ikaslearen elbarritasunaren ziurtagiria.

Ikaslearen aita, ama, lege-tutorea edo anai-arrebaren elbarritasunaren ziurtagiria.

Eskatutako ikastetxeko bazkide kooperatibista izatearen ziurtagiria.

Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak erabakitako irizpideak bete izanaren ziurtagiria/k.

Halaber, baremoko edozein apartaturen puntuazioa eskatzen denean, behar diren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. **Aurrez aurreko izapidetzean, dokumentazio guztia (bai**

derrigorrezkoa bai baremazioan puntuak lortzeko beharrezkoa dena) lehenengo eskatu den zentroan aurkeztuko da, beste edozein zentrok eman behar dituen baremazio-puntuak egiaztatzen duen dokumentazioa izan ezik. Hori zentro bakoitzaren idazkaritzan aurkeztu beharko da, lehenengo eskatu den zentroan eskabidea erregistratu ondoren. Horretarako, eskabidean adierazita egon behar dira puntuazioa eskatzen den zentro bakoitzaren baremoko apartatuak.

Familia egoitzari edo lantokiari dagozkion puntuak egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak lehenengo eskaeran aukeratutako zentroan aurkeztea aski izango da, eta eskaera guztietarako baliagarriak izango dira, puntuazioa guztietan alda daitekeen arren. Aplikazio informatikoak, eskaera bakoitzeko, puntuazio hobereana esleituko du ziurtagiriak kontuan hartuta.

ONLINE ESKAERAK

Internet bidezko tramitazioan, dokumentazio guztia eskaneatuko da eta, ondoren, eskabidearekin batera bidali beharko da Hezkuntza Sailak abian jarritako aplikazio telematikoaren bitartez: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio>

AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak onartzeko epea amaitu ondoren ez da beste agiririk onartuko. Atal edo azpiatal batean puntuatzeko balio duten agirietako bat aurkezten ez bada, batere punturik gabe geratuko da atal edo azpiatal hori. Horrek ez du eskaera baliogabetzen, ez eta gainerako ataletako edo azpiataletako puntuazioak ere.

